

Zerbitzua bezeroengana helarazteko, gure enpresaren webgune bat sortzea erabaki dugu, non informazio desberdina aurkeztuko dugun. Honekin batera, Instagramen ere kontu bat edukiko dugu, egiten ditugun ekintzen berri emateko eta berrikuntzak iragartzeko. Horrela, gure bezeroekin harreman zuzena mantendu genezake, komunikazio-kanal egokiena izanez.

Horretaz gain, kartel erakargarriak egitea erabaki dugu eta Durangalde osoan eta ikastetxe desberdinetan jartzea pentsatu dugu.

Bestalde, Euskadi Irratian, uda garaian ikasturte berria hasi baino lehen, iragarki bat jarriko dugu ere.

Kanal mota	Deskribapena
Kartelak	Herrietatik zehar jarriko ditugun kartelak izango dira, zerbitzuari buruzko informazio orokorra izango dute eta erakargarriak izango dira. Durangon esaterako Madalena Plazan jarriko genuke, Ezkurdi plazan eta eskoletatik gertu. Durangaldeko beste herri batzuetan ere eskoletatik gertu jarriko genituzke kartelak, haurren eta gurasoen atenzioa deitzeko.
Webgune / Sare sozialak	Plataforma digitala izango da. Informazioa agertuko da, ekintzei buruzko informazioa, prezioen taula eta gurekin harremanetan jartzeko bideak. Karteletan baino informazio gehiago egongo da eskuragarri, eta sare sozialetan, ekintzen argazkiak eta bezeroen iruzkinak ere egongo dira.
Irratiko iragarkia	Iragarki hau Euskadi Irratian entzungai egongo da ekainetik irailera. 20 segundoko iragarkia izango da non gure aisialdi zerbitzua azaltzen den, eta gurekin harremanetan jartzeko telefono zenbakia eta helbide elektronikoak esango diren. Iragarkia: <i>“Durangaldean haurrentzako aisialdi talde berri bat sortu dugu.klusioa bermatzeko gogoekin, aniztasun funtzionala duten hurrei zuzendutako aisialdi inklusibo eta dibertigarria eskaini nahi dugu. Sartu www.ekitxe.com webgunean informazio gehiagorako”</i>
Anboto aldizkarian iragarkia	Anboto aldizkarian ere iragarki bat jarriko dugu, Durangaldeko aldizkaria baita. Iragarkia: <i>“Durangaldean haurrentzako aisialdi talde berri bat sortu dugu.klusioa bermatzeko gogoekin, aniztasun funtzionala</i>

duten haurrei zuzendutako aisialdi inklusibo eta dibertigarria eskaini nahi dugu. Sartu www.ekitxe.com webgunean informazio gehiagorako edo etorri Ekitxe bulegora Durangon”

Guk egindako kartela:



EKITXE

**ONGI ETORRI ZUEN ETXERA!
PREST AL ZAUDE GUREKIN MUNDUA
EZAGUTZEKO? JENDE ANITZA EZAGUTZEKO?
2024EAN ELKAR EZAGUTU AHAL IZANGO
GARA.**

**ANIZTASUN FUNTZIONALA DUTEN HAURREN GIZARTERATZEA
BERMATZEAZ GAIN, FAMILIEN ETA HAURREN ARTEKO
HARREMANA EKINTZEN BIDEZ SUSTATZEA DA HELBURUA.**

MUNDU GUZTIAK PARTE HARTU DEZAKE
→ **FAMILIAK ETA HAURRAK (4-8URTE)**

**ASTEKO BOST EGUNETAN EKITXE
ERABILGARRI DAUKAZUE.**

EGUN 1 → **25€**

HARREMANETAN JARTZEKO: 677876942